

1317/2009 Ebazpena, irailaren 25ekoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariarena. Ebazpen honen bidez, agindua ematen da Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko web orrian argitaratzeko A.2 Lanbide Taldeko (Goi-mailako teknikariak) aldi baterako kontrataziorako behin betiko zerrendak, hain zuzen ere hutsik dauden lanpostuena eta ordezkapenena.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2008ko maiatzaren 29ko Erabakiaren bidez (EHAA 198 zk, 2008ko urriaren 16koa), egokitu egin da aldi baterako pertsonal estatutarioa Enteko zerbitzu-erakundeetan sartzeko sistema arautzen duen 2004ko urtarrilaren 26ko Erabakia, 2006ko Lan Eskaintza Publikotik eratorritako aldi baterako kontratazio-zerrendak prestatzekoa dena.


Zerrenda berriak 2008ko maiatzaren 29ko Erabakiak araututako irizpideen arabera ordenatuta, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariaren abenduaren 16ko 1507/2008 ebazpenaren bidez, Osakidetza web orrian A.2 Lanbide Taldeko (Goi-mailako teknikariak) aldi baterako kontrataziorako behin-behineko zerrendak argitaratu ziren, hain zuzen ere lanpostu hutsena eta ordezkapenena.

Aipatutako aldi baterako zerrenden inguruko erreklamazioak aztertuta,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.- Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko web orrian argitaratzea A.2 Lanbide Taldeko (Goi-mailako teknikariak) aldi baterako kontrataziorako behin betiko zerrendak, hain zuzen ere lanpostu hutsena eta ordezkapenena.

Bigarrena.- Ebazpen honen aurka, interesa duten izangaiek hilabeteko epea izango dute ebazpen hau argitaratu den egunetik hasita, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendari Nagusiari gora jotzeko errekurtsioa ezartzeko.



**Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendaria
ESTEBAN RUIZ ALVAREZ**